

BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

3004

AGINDUA, 2024ko ekainaren 11koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, 2024rako dirulaguntzak arautzen dituen eta deialdia egiten duena Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetan kudeaketa-sistemak ezartzeko eta hobetzeko, eraikuntzaren kalitate arkitektonikoa sustatzeko, jasangarritasuna indartzeko eta berrikuntzari laguntzeko (Eraikal 2024 programa).

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren ekimen bat da Eraikal, eraikuntza- eta arkitektura-kalitatearen kudeaketa sustatzeko, bai obra berrian, bai Eraikinen Ikuskapen Teknikoen ondoriozko birgaitze- eta mantentze-lanak egiteko obran, bai eta eraisteko eta birziklatzeko lanetan ere, eraikinaren bizitza baliagarriaren zikloa jaso dadin. Gainera, helburua da eraikuntzaren sektorean ingurumenaren eta laneko arriskuen prebentzioaren aldagaia txertatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetan eta profesionaletan jasangarritasuna sustatuz eta berrikuntzari lagunduz.

Bizitegi-eraikuntzaren sektorean eragile ugari parte hartzen dute zuzenean edo zeharka, eta hainbat egiteko dituzte: proiektugilea, sustatzailea, eraikitzailea, gremioak, materialen hornitzaileak, laborategiak eta kalitatea kontrolatzeko entitateak, bezeroak, erabiltzaileak. Hori dela eta, azken kalitatean eragin dezaketen puntu kalteberak ugaritu egiten dira. Kalitatea kudeatzeko modu bakarra da sistema bat ezartzea prozesuan esku hartzen duten eragile guztien arteko harremana eta oreka bermatzeko.

Eraikal ekimenaren bitartez, EAEko bizitegi-eraikuntzaren sektorea eraldatzen lagundu nahi da, sektore hori sendotzeko eta lehiakorra eta efizientea izan dadin, enpresetan etengabe hobetzerantz bideratutako kudeaketa-praktikak ezarriz. Izan ere, behar-beharrezkoa da praktika horiek abiaraztea, ingurumena errespetatuko duten kalitatezko lan-prozesu seguruen arabera eraikitako etxebizitzak herriarren eskura jartzeko, horien eta oro har gizartearen beharrekina bat etorritz.

Etengabeko hobekuntza indartzea oinarritzeko osagaia da lehiakortasunerako, baina ez nahikoa; hori ikusirik, Eraikalek Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektorean ere berrikuntza sustatzen du, sektore horren oraina ez ezik, etorkizuna ere bermatzeko. Hori dela eta, honako hauekin lotutako proiektuak sustatu nahi dira:

- Eraikinen kontserbazio-egoera.
- Eraikinen kalitatea, eraikuntzarekin lotutakoa zein arkitektonikoa.
- Energia-eraginkortasuna.
- Kalitatearen kudeaketa, kalitate-sistemak ezartzea eta eraikuntzaren informazioa modelatzea.
- Eraikuntza-prozesuen industrializazioa.
- Eraikuntza jasangarria.
- Laneko segurtasuna eta osasuna.
- Irisgarritasuna eta domotika.

XII. Legegintzaldirako gobernu-programan (2020-2024), altxatutako eraikin-parkea birgaitzen laguntzeko konpromisoa dago jasota (39. konpromisoa), etxebizitzari eta hiriak leheneratzeari eskainitako blokean. Ildo horretan, konpromiso horren 6. ekimenak aurreikusten du arkitekturaren berrikuntza eta ikerketa-proiektuak sustatzea eraikuntza jasangarriaren, eko-berrikuntzaren eta energia-efizientziaren arloan.

Gainera, Etxebizitza Sailburuordetzak eraikuntza-elementuen kalitatea jagoten eta arautzen du, eta profesionalen esku ipintzen du eraikinen kalitatea berrikuntzaren, energiaren efizientziaren eta jasangarritasunaren hobekuntzaren ikuspegitik kontrolatzeko esparrua.

Laguntza-deialdi honek helburu hori lortzen laguntzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektorean kudeaketa-sistemak ezartzeko, eraikuntza- eta arkitektura-kalitatea sustatzeko, jasangarritasuna indartzeko eta berrikuntzari laguntzeko sustapen-jarduerak finantzatzeko.

Hala ere, eraikuntzaren sektorean jasangarritasuna sustatzeko jarduera horretarako, programa honen bidez sektoreko enpresa eta profesionalentzako jada bideratzen diren neurriez gain, eraikinek, eraikuntza-fasean, nazioartean onartutako jasangarritasun-estandarrak errespetatzeko eta kontrol- eta segurtasun-estandarrak areagotuko dituen prozesu baten emaitza izateko egiten duten ahalegina aitortzeko jarduketak hartu behar dira. Horregatik, deialdi honetan lerro berri batean bereizi da eraikuntza-prozesuan dagoen industrializazio-maila handitzen duten eraikuntza-obrak sustatzen dituzten pertsonentzako laguntza, bereziki bizitegi-sektorean, eta bereziki etxebizitza kolektibo eta babestuetan.

Laguntza-araubide hau Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko ekainaren 2ko Aginduaren bidez onartutako dirulaguntzen plan estrategikoaren barruan jasota dago, zeinaren bidez onartzen baita sailaren 2021-2024ko dirulaguntzen plan estrategikoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 7.1 artikuluan xedatzen den bezala eta arau horretan jasotako edukiaren arabera. Aipatutako dokumentua sei ardatz estrategikotan egituratzen da. Ardatz horiek zehaztuta daude, batetik, Sailaren dokumentu programatiko sektorialetan, eta, bestetik, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari dagozkion konpromisoetan, zeinak identifikatuta baitaude XII. legegintzaldiko (2020-2024) «Euskadi mar-txan» gobernu-programan.

Ardatz estrategiko horietako bat da kalitatea, berrikuntza eta jasangarritasuna sustatzea etxebizitzetan. Hain zuzen ere, hori da Eraikal programaren xedea, programa horren bidez laguntzak iragartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetan kudeaketa-sistemak ezartzeko eta hobetzeko, eraikuntzaren kalitate arkitektonikoa sustatzeko, jasangarritasuna indartzeko eta berrikuntzari laguntzeko.

Horrenbestez, eta lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena) eta urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuak (Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena) ematen didaten eskumena baliatuz, eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren kargura ematen diren laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu dakizkiekeen gainerako xedapenetan xedatutakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— 2024ko ekitaldirako laguntza-programaren deialdia egitea Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetan kudeaketa-sistemak ezartzeko eta hobetzeko, eraikuntzaren kalitate arkitektonikoa sustatzeko, jasangarritasuna indartzeko eta berrikuntzari laguntzeko (Eraikal 2024 programa), bai eta deialdi horren oinarriak onartzea ere.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Aurreikusitakoaz gain, laguntza hauei honako hauek aplikatuko zaizkie: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa; 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena, eta 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaioke Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 11.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

I. ERANSKINA

AGINDUA, 2024KO EKAINAREN 11KOA, LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOETAKO SAILBURUARENA, 2024RAKO DIRULAGUNTZAK IRAGARTZEN DITUENA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BIZITEGI-ERAIKUNTZAREN SEKTOREKO ENPRESETAN KUDEAKETA-SISTEMAK EZARTZEKO ETA HOBETZEKO, ERAIKUNTZAREN KALITATE ARKITEKTONIKOA SUSTATZEKO, JASANGARRITASUNA INDARTZEKO ETA BERRIKUNTZARI LAGUNTZEKO (ERAICAL 2024 PROGRAMA)

OINARRIAK

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak emango dituen dirulaguntzen deialdia egitea da, Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetan kudeaketa-sistemak ezartzeko eta hobetzeko, eraikuntzaren kalitate arkitektonikoa sustatzeko, jasangarritasuna indartzeko eta berrikuntzari laguntzeko (Eraikal 2024 programa).

2.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzei Europako Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 Erregelamendua (EB) aplikatu beharko zaie; alegia, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa. Araubide horren arabera, estatu kide batek enpresa jakin bati emango dizkion de minimis laguntzen zenbatekoa gehienez ere 300.000 eurokoa izango da aurreko hiru urteetan.

2. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

1.– Diruz lagundu daitezkeen jardueratzat hartuko dira honako lerro hauekin bat egiten duten jarduerak:

1.1.– I. lerroa: Honako alderdi hauei dagozkien berrikuntza arloko proiektu edo azterlanak:

a) Bizitegi-eraikuntzaren kalitatea, funtzionalitateari, arkitekturari eta eraikuntzari dagokienez:

– Obra berria: EKT (Eraikingintzaren Kode Teknikoa) aplikatzea, proiektuaren kontrola, obra eta zerbitzuko probak gauzatzea. Eraikinen efizientzia energetikoa. Kostuen kudeaketa eta programazioa. Irisgarritasuna eta soluzio domotikoak ezartzea.

– Lehendik dauden eraikinak: eraikinen kontserbazio-egoera, Eraikinaren Ikuskapen Teknikoa (EIT), eraikinaren patologia, birgaitzea, erabilera nahiz mantentze-lana eta bizitza baliagarria. Eraikinen efizientzia energetikoa. Proiektuaren eta obraren kalitate-kontrola. Kostuen kudeaketa eta programazioa. Irisgarritasuna eta soluzio domotikoak ezartzea. Ondarearen kontserbazioari eta babesari buruzko azterlanak, eta birgaitzearekin, efizientzia energetikoarekin eta irisgarritasuna hobetzearekin bateragarriak diren aztertzea, araugintzaren aldetik nahiz alderdi operatiboan.

b) Kudeaketaren kalitatea hobetzeari eta kalitatea ezartzeari buruzko azterlanak eta Eraikuntzaren Informazioa Modelatzea.

c) Bizitegi-erabilera duten eraikinetako obretako laneko segurtasunari eta osasunari buruzko azterlanak.

d) Bizitegi-erabilera duten eraikinen instalazioei buruzko azterlanak.

e) Etxebizitza berrien eta lehendik daudenen bizigarritasunari buruzko azterlanak.

1.2.– II. lerroa: Informatikako tresnak garatzea, eta dibulgazio-kanpainak, jardunaldiak eta prestakuntza-ikastaroak egitea, aurreko atalean aurreikusitako gaiekin lotuta.

Ez dira lerro honetan sartzen sistema partikularren edo markaren publizitatea egiten duten ekintzak. Kode irekiko tresna edo plataforma informatikoak sortzeko proposamenak bakarrik onartuko dira. Halaber, aplikazio informatikoak behar dituzten sistemak ezartzeko, aplikazio horiek ere kode irekiko soluzioetan oinarritutakoak izan beharko dute.

1.3.– III. lerroa: Bizitegi-eraikuntzaren sektoreko pertsona fisiko edo juridikoentzako kudeaketa-sistemak ezartzea eta ziurtatzea.

a) BIM erabiltzen duten eraikuntza-obretako informazioa antolatzeke eta digitalizatzeko sistema ezartzea eta ziurtatzea, UNE-EN ISO 19650-1:2019 arauan oinarrituta.

b) ISO 9001, ISO 14001, ISO 14006 nazioarteko normalizazio-arauetan, UNE 166002 Espainiako Arauan, EMASen eta laneko segurtasun eta osasunari buruzko ISO 45001 Arauan oinarritutako kudeaketa-sistemak ezartzea eta ziurtatzea, eta horiek integratzea.

c) Normalizazioko nazioarteko arau hauetan oinarritutako kudeaketa-sistemak ezartzea eta egiaztatzea: «Entsegu-laboregien gaitasunerako baldintza orokorrak» izeneko ISO/IEC 17025 eta «Ikuskatze-lana egiten duten hainbat motatako organismoen funtzionamendurako irizpide orokorrak» izeneko ISO/IEC 17020.

d) Eraikuntzaren sektoreko profesionalentzat dauden efizientzia energetikoari eta jasangarritasunari lotutako ziurtagiriak egiaztatzea, betiere Espainian egokitutako nazioarteko aitortpena duten ziurtagiriak badira, esaterako Passivhaus ziurtagiriak, aholkularientzat diren Building Research Establishment Environmental Assessment Methodology (BREEAM) ziurtagiriak eta VERDE ebaluatzaileentzako ziurtagiriak, edo ENACek edo Europako organismo homologoak UNE-EN ISO/IEC 17021-1: 2015 edo UNE-EN ISO/IEC 17024:2012 arauetan egiaztatutako entitateek emandako ziurtagiriak.

a), b) eta c) apartatuei dagokienez, ENAC egiaztapen-entitate nazionalak edo Europako organismo homologoak egiaztatutako egiaztapen-entitateak izanez gero, esandako entitate horiek emandako ziurtagiriak bakarrik jaso ahal izango dituzte laguntzak.

1.4.– IV. lerroa: Bizitegi-eraikinetara bideratutako ziurtagiriak ezartzea eta egiaztatzea.

Efizientzia energetikoari eta jasangarritasunari lotutako eraikinen ziurtagiriak ezartzea eta egiaztatzea, betiere Espainian egokitutako nazioarteko aitortpena duten ziurtagiriak badira, esaterako LEED eraikin jasangarrien sailkapen-sistema egiaztatzea (Efizientzia energetikoaren eta diseinu jasangarriaren lidergoa), Passivhaus egiaztatzea, Building Research Establishment Environmental Assessment Methodology (BREEAM) egiaztatzea edo VERDE ziurtagiria egiaztatzea.

1.5.– V. lerroa: Bizitegi-eraikuntzako eraikuntza-prozesuen industrializazioari buruzko azterlanak, proiektuak eta prototipo espezifikoak.

a) Prozesu industrializatuen ondoriozko bizitegi-eraikinen jasangarritasun-, funtzionaltasun-, malgutasun- eta espazio-prestazioen ebaluazioa.

b) Kudeaketaren kalitatea hobetzeari eta kalitatea ezartzeari buruzko azterlanak etxebizitzaren eraikuntza- eta industrializazio-prozesuetan.

c) Bizitegi-erabilerako eraikinetako obretan eta etxebizitzaren eraikuntza industrializatuko prozesuetan laneko segurtasunari eta osasunari buruzko azterlan konparatiboak.

d) Exekuzio materialeko kostuei buruzko azterlan konparatiboak bizitegi-erabilerako eraikinetako obretan eta etxebizitzan eraikuntza industrializatuko prozesuetan.

e) Etxebizitza babestuen industrializazioari buruzko azterlanak, kasuen azterlanak eta proiektu espezifikoak, EAEko araudiaren arabera.

f) Etxebizitzan bizigarritasunari buruzko azterlanak, oso industrializatutako prozesuen ondorioz.

g) Moduluen, eraikinen edo eraikin pilotuen zatien prototipoak egitea eta fabrikatzea, horiek aztertzeke eta modu esperimentalean monitorizatzeke.

2.– Ez dira diruz laguntzeko moduko jarduerak izango honako gastu edo inbertsio hauek:

a) Ziurtagiriak mantentzera edo berritzera bideratutako gastuak, edota arauen bertsio berrietara egokitzeko prozesuan sortutakoak.

b) Jarduketari oro har aplika dakizkiokeen zergen aplikazioaren ondoriozko gastuak. Balio erantsiaren gaineko zergaren kasuan, diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko da laguntza eskatu duen pertsonak ordaindu duen eta jasana egin duen zenbatekoa.

c) Ekipamendua erostera bideratutako inbertsioak edota horien amortizazioak.

d) Enpresa batera berariaz bideratutako ekimenak edo patente bat lortzeko xedea dutenak.

3. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Agindu honen esparruan, honako hauek hartuko dira diruz laguntzeko moduko gastutzat: Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30. artikuluan ezarritakoak. Betiere, dirulaguntzari buruzko araudian gastuak justifikatzeko ezarri den epea amaitu aurretik benetan ordaindu den gastua hartuko da egindako gastutzat.

2.– IV. lerroaren kasuan, diruz lagundutako jardueraren izaerari dagozkion gastutzat hartuko dira, eta, beraz, diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira ziurtagiria lortzetik eratorritako gastu guztiak, hala nola zerbitzuko probak eta saiakuntzak, baldin eta ezin bazaizkio inongo arau-errekerimenduri egotzi.

3.– V. lerroaren kasuan, diruz lagundutako jardueraren izaerari dagozkion gastutzat hartuko dira, eta, beraz, diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira prototipoak egiteki eratorritako gastu guztiak, hala nola exekuzio materiala, saiakuntzak eta zerbitzuko probak.

4. artikulua.– Diruz lagundutako jarduketak azpikontratatzea.

1.– Diruz lagundutako jardueraren % 100 ere azpikontratatu dezake onuradunak. Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 31. artikuluan ezarritakoa aplikatzeko, ulertuko da pertsona onuradunak azpikontratatu duela, baldin eta hirugarren batzuekin hitzartu badu dirulaguntzaren helburuko jardueraren egikaritza osoa edo partziala. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da pertsona onuradunak berak diruz lagundutako jarduera egiteko egin behar dituen gastuen kontratazioa.

2.– Onuradunak ezingo du, inola ere, honako hauekin hitzartu diruz lagundutako jardueren egikaritza osoa edo partziala:

a) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan zehaztutako debekuetako bat duten pertsona edo entitateekin.

b) Kontratuaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsona edo entitateekin.

c) Bitartekari edo aholkulariekin, horiei ordaindu beharrekoak eragiketaren kostu osoaren ehuneko jakin bat badira, non eta ordainketa hori ez dagoen justifikatuta egindako lanak edo emandako zerbitzuak merkatuan daukan balioaren erreferentziaren arabera.

d) Pertsona onuradunarekin loturaren bat daukaten pertsona fisikoekin edo juridikoekin, inguruabar hauek gertatzen direnean izan ezik:

1.– Organo emailearen berariazko baimena aldeztu aurretik lortzea.

2.– Diruz laguntzeko zenbatekoa ez izatea lotutako entitateak izandako gastua baino handiagoa. Kostua egiaztatzeko, pertsona onuradunaren gastuak frogatzeko ezarrita dauden baldintza berberak justifikatu beharko dira.

e) Deialdi edo programa berean laguntza eskatu, baina betekizunak betetzen ez dituztelako edo beharrezko balorazioa lortu ez dutelako laguntzarik gabe geratu diren pertsonekin edo entitateekin.

f) Deialdi edo programa berean laguntza edo dirulaguntza jaso duten pertsona edo entitateekin.

5. artikulua.– Diruz lagundutako jarduketak gauzatzeko epea.

Beti ere, dirulaguntzaren xede diren jarduketak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi beharko dira, eta 2026ko ekainaren 30a baino lehen amaituta egon beharko dute, barnean direla ziurtapenaren xede diren eta IV. lerroan jasota dauden eraikinen obrak eta V. lerroko prototipoak.

6. artikulua.– Laguntzen onuradunak.

1.– Agindu honetan ezarritako laguntzen onuradun izan ahalko dira, aurreko artikuluko I., III. eta V. lerroei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden pertsona hauek:

a) Ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafeen barnean, bizitegi-eraikuntzarekin lotutako sektore hauetakoren batean dauden enpresak eta profesionalak:

833.2) Higiezinaren sustapena.

50) Bizitegi-erabilerako eraikinen eraikuntza, obra berrikoak nahiz birgaitze- eta mantentze-obretakoak. Eraikuntza-obretako instalazio elektrikoak, iturgintzako instalazioak eta bestelako instalazioak. Eraikinen akabera. Eraikuntza espezializatuko bestelako jarduerak.

843) Arkitektura- eta ingeniari-zerbitzu teknikoak eta aholkularitza teknikoarekin zerikusia duten bestelako jarduerak. Jarduera horiek honako hauen parte-hartzera mugatuta egongo dira: arkitektoen estudioak, aparejadoreen estudioak eta ingeniari-zerbitzuak. Ingeniari-zerbitzuak egiaztatu beharko dute gutxienez bi lan egin dituztela bizitegi-eraikuntzaren arloko proiektu, aholkularitza edo txostenei buruz, deialdi hau argitaratu aurreko azken hiru urteetan.

b) Eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko entitateak eta eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko saiakuntza-laborategiak, Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunaren aurrean dagokion adierazpena aurkeztu dutenak, eraikuntzaren kalitate-kontrolerako entitateek eta saiakuntza-laborategiek beren jardueran aritzeko bete behar dituzten baldintzak garatzen dituen martxoaren 31ko 410/2010 Errege Dekretua eta eraikuntzako kalitate-kontrola arautzeko urriaren 28ko 209/2014 Dekretua betez.

c) Ordezkaritza zabala duten edo jendea biltzeko ahalmen handia duten bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresa eta profesionalen talde edo elkarteak, nortasun juridikoa izan ala ez. Halakotzat hartuko dira bizitegi-eraikuntzaren sektorearekin lotura duten elkargo profesionalak, ikerketa teknologikoko zentroak, merkataritza-ganberak, eraikuntza-arloko klusterrak, etxebizitzaren sozietate publikoak eta hirigintza-sozietateak.

2.– Aurreko artikuluan aurreikusitako II. lerroarekin lotuta, agindu honetan ezarritako laguntzen onuradun izan ahalko dira bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresen eta profesionalen taldeak edo elkarteak, nortasun juridikoa izan ala ez, Euskal Autonomia Erkidegoan daudenak eta ordezkaritza zabala edo jendea biltzeko gaitasuna dutenak. Halakotzat hartuko dira bizitegi-eraikuntzaren sektorearekin lotura duten elkargo profesionalak, ikerketa teknologikoko zentroak, merkataritza-ganberak, eraikuntza-arloko klusterrak, etxebizitzaren sozietate publikoak eta hirigintza-sozietateak.

3.– IV. lerroaren kasuan, laguntzaren onuraduntzat hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden eta ziurtagiria lortzen duten eraikinak sustatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, bai bizitegi-eraikuntzaren sektorean egiten duten jardueraren ondorioz sustapen hori egiten duten pertsonak badira (kasu horretan, jarduera hori ekonomia-jardueren gaineko zergaren 833.2 epigrafearekin bat etorri beharko da), bai eremu pribatuan norberaren erabilerarako familia bakarreko etxebizitzetarako jarduketara sustatzen duten pertsonak badira.

4.– Honako entitate hauek ezingo dira onuradun izan:

a) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikulua ondorio horietarako adierazitako baldintzaren bat aplika dakiekeen entitate edo pertsonak.

b) Ezin izango dira onuradun izan horretarako ezgaitzen duen legezko debekua duten entitate edo pertsonak, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barnean direla, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13.1 h) artikuluan xedatutakoaren arabera.

5.– Deialdi honetako eskabidea pertsona fisikoen edo juridikoen talde batek egiten duenean (publikoak edo pribatuak nortasun juridikorik gabe), Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 11.4 artikuluari jarraikiz, taldeko kide guztiek laguntzen onuradun izateko eska daitezkeen baldintza guztiak bete beharko dituzte. Nolanahi ere, izendatu behar da taldearen ordezkaritza edo ahaldua bat, notario-ahalordeak dituen taldeari onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko. Taldea ezingo da desegin, harik eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 44. artikuluan finkatzen den preskripzio-epea igaro arte.

6.– Dirulaguntza emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, automatikoki egiaztatuko da eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela, eta, horretarako, ez da eskatzaileen baimenik beharko, hala xedatzen baitu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua. Dena dela, eskatzaileak espresuki uka dezake baimen hori, eta, hala eginez gero, ziurtagiria aurkeztu beharko du, 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 6.3 artikuluan xedatutakoaren arabera (Agindua, 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).

Era bereraren, dirulaguntzen itzulketagatik eratorritako betebeharrak ordainduta eduki beharko dituzte eskatzaileak.

Apartatu honetan jasotako betekizunak indarrean izango dira, harik eta emandako dirulaguntza likidatu arte.

7. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

1.– Dirulaguntzen eskabideak aurkezteko epea bi hilekoa izango da, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko entitateek eta nahitaez elkargokide izan behar duten jarduera profesionalen bat egiten dutenek, interesdun izanik, jarduneko prozedurako izapide guztiak bitarteko elektronikoen bidez eskatu, kontsultatu eta egin beharko dituzte. Eskerak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak izapidetzeko moduari buruzko zehaztasunak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa daude eskuragarri (url):

– 1. lerroa:

– Gaztelaniaz: www.euskadi.eus/servicios/1039827

– Euskaraz: www.euskadi.eus/zerbitzuak/1039827

– 2. lerroa:

– Gaztelaniaz: www.euskadi.eus/servicios/1039828

– Euskaraz: www.euskadi.eus/zerbitzuak/1039828

– 3. lerroa:

– Gaztelaniaz: www.euskadi.eus/servicios/1039829

– Euskaraz: www.euskadi.eus/zerbitzuak/1039829

– 4. lerroa:

– Gaztelaniaz: www.euskadi.eus/servicios/1039830

– Euskaraz: www.euskadi.eus/zerbitzuak/1039830

– 5. lerroa:

– Gaztelaniaz: www.euskadi.eus/servicios/1039831

– Euskaraz: www.euskadi.eus/zerbitzuak/1039831

Eskabidea elektronikoki aurkeztu ondorengo izapideak –jakinarazpenak eta justifikazioak barne hartuta– «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Pertsona fisikoek bide elektronikoa edo aurrez aurrekoak erabili ahal izango dituzte prozedura honetako izapideak eskatzeko, kontsultatzeko eta bideratzeko. Eskabidea eta dokumentuak aurrez aurre aurkezteak edo bide elektronikoa erabiltzeak ez du esan nahi nahitaez baliabide horiek erabili behar direnik prozeduraren ondorengo izapideetan, edozein unetan alda daitezke-eta, Herritarrei arreta integral eta multikanala emateari eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateari buruzko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 17. artikuluan xedatzen den moduan.

a) Modu presentziala: eskaerak modu presentzialean aurkeztu ahal izango dira *Zuzenean* Zerbitzuan, aurrez hitzordua eskatuta <https://www.euskadi.eus/zuzenean-aurrez-aurreko-arreta/web01-a2zuzen/eu/> helbidean edo aurretiko hitzordua eskatu edo ezeztatzeko telefono

esklusiboaren bidez (945 01 90 00), EAEko erregistro osagarrietan (72/2008 Dekretua, apirilaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoen aurrean.

b) Modu elektronikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa sartuta aurkeztuko dira eskabideak, apartatu honetan adierazten diren helbideen bidez.

c) Helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

d) Izapidetze elektronikoa ordezkari baten bidez ere egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkaritza hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoa inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkariek>

3.– Deialdi honen xede diren dirulaguntzen lerro batean ere ez zaio emango dirulaguntza bat baino gehiago pertsona eskatzaile berari.

Pertsona batek bi jarduketa-proiektu edo gehiagorako laguntza eskatzen badu, dirulaguntza-lerro berean, honela jotzeko da:

a) I., II. eta V. lerroetan, dagokion balorazio-fasean puntuaziorik handiena lortzen duen proiektua bakarrik hartuko da kontuan. Fase horretan proiektu batek baino gehiagok puntuazio bera lortzen badute, sarrera-erregistroaren arabera lehenengo aurkeztu den eskabidean jasotakoa hartuko da kontuan, eta eskabide berean bat baino gehiago badaude, aurreko posizioan dagoena.

b) III. eta IV. lerroetan, sarrera-erregistroaren arabera lehenengo aurkeztutako eskabidean jasotako proiektua hartuko da kontuan. Eskabide horretan jarduketa-proiektu bat baino gehiago izanez gero, aurreko posizioan dagoena.

4.– Interesdunek aukeran dute eskabidea eta dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztea. Era berean, prozedura osoan zehar, entitate eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan xedatutakoari jarraituz.

5.– Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak datu pertsonalak dagokien babes-mailarekin tratatuko ditu, honako hauetan ezarritakoaren arabera: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, zeinaren bidez indargabetu egiten baita 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra); 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa; eta arloari aplikatu behar zaion gainerako araudia.

8. artikulua.– Eskabidearen edukia eta eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Plataforma elektronikoa egindako eskaerak berekin dakar Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.5 artikuluan aipatzen den erantzukizunpeko adierazpena, zeinak honako hauek jasoko baititu:

a) Entitate eskatzaileak edozer administrazioari zein beste ente publikori nahiz pribatari xede bererako laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera nahiz bestelako baliabideak eskatu dizkien eta lortu dituen, eskatutako zenbatekoak eta emandako zenbatekoak zehaztuz, eta berariaz adieraziz BEZa ere diruz lagundu daitekeen ala ez dirulaguntza programa horietan.

b) Entitate eskatzailea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek emandako izaera bereko dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den itzultze- edo zehatze-prozedura batean sartuta dagoen edo horrelako prozeduraren baten xede izan den.

c) Entitate eskatzailea dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen debekuren batean edo administrazio-zehapen edota zehapen penalen batean dagoen.

d) Dirulaguntza eskatu duen pertsona edo entitatea ez dela betetzen ari sexu-diskriminazioagatiko zigor administratiborik edo penalik, eta ez zaiola debeku hori ezarri Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

e) Entitate eskatzaileak ez duela Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikulua onuradun izateko ezarritako debekurik.

f) Entitate eskatzaileak Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduari –Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa– lotutako laguntzak lortu dituen aurreko hiru urteetan, eta, hala bada, laguntza horien zenbatekoa.

g) Enpresa ez deslokalizatzeko konpromisoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.

h) Laguntza eskatzen duen pertsona agindu honetako IV. laguntza-lerrora aurkeztu den eraikin bat egitea sustatzen duen pertsona den.

Laguntza-eskaera modu presentzialean egiten bada, eskatzaileak behar bezala sinatutako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du eskabidearekin eta hurrengo apartatuan adierazitako dokumentazioarekin batera. Agindu honen II. eranskinean, eskabidea modu presentzialean egiten den kasurako eskabide-eredua jasotzen da.

2.– Eskaera egiten duen entitatearen ezaugarriak eta burutu nahi den ekintza kontuan harturik, eskabide guztiekin batera, ezinbestez, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Proiektuaren memoria, gutxienez honako hauek jasotzen dituen:

1.– Sarrera: sustatzailearen deskribapen orokorra, enpresaren egituraren zirriborroa eta proiektuaren helburu orokorrak.

2.– I. lerroan bildutako jarduketetarako: Berrikuntza-proiektuak edo -azterlanak, eta II. lerroa: tresna informatikoen, dibulgazio-kanpainen, jardunaldien eta prestakuntza-ikastaroen garapena; memoriak honako alderdi hauek zehaztu beharko ditu:

– Proposatutako jarduketaren deskribapen xehatua, proiektuan jasotako jarduera bakoitza zehaztuta.

– proposamena lan-ildoetako batera egokitzen dela;

– sektorerako egokitasuna, aukera eta zuzentasuna;

– inpaktu potentziala sektorean, inpaktu hori neurtzeko adierazleak eta neurketak barnean hartuta;

– proiektu edo ikerketa taldearen kalitate tekniko eta zientifikoa eta esperientzia;

- finantzaketaren egitura;
- proiekturako proposaturiko helburuak eta epeak.

3.– III., IV. eta V. lerroetan aurreikusten diren jarduketetarako, memoriak proiekturako proposatutako helburuak eta epeak zehaztu beharko ditu.

b) Laguntza eskatzen den jarduketa-lerroari dagokion aurrekontua. Aurrekontua urteka banakatuta egongo da 2026. urtera arte, bai eta lanketa edo jardueren arabera ere, lanketa bakoitzaren barne-gastuak (proiektua zuzentzen duen eragilearen beraren gastuak) eta kanpoko edo azpikontratutako eragileen gastuak (kanpo-entitateak azpikontratatzeko gastuak) bereizita.

Barne-gastuei dagokienez, egin beharreko zereginen aurreikuspena zehaztu beharko da, baita baliatutako ordu-tarifaren egozpena ere.

Kanpoko kontratazioaren kasuan, estimazioa justifikatu beharko da (ahal bada, aurrekontuarekin), eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 31. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

Eskabidea III. edo IV. lerroetarako izango balitz, aurrekontuak aholkulariaren edo egiaztatzailearen eskaintza jaso beharko du.

Eskatzaileak ezin badu balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa jasanarazi, entitatea BEZaren araubide orokorretik salbuetsita dagoela egiaztatzen duen Ogasunaren ziurtagiria edo 390 ereduaren kopia. Entitateak BEZaren zati bat benetan berreskuratzen badu, gastu hori hainbanatuta esleitu beharko da, amaitutako azken urterako dagokion Foru Ogasunak emandako dokumentu ofizialean ezartzen den hainbanaketa-ehunekoa aplikatuz.

c) Diruz lagundutako jardueraren eredugarritasuna hedatzeko, jakinarazteko eta indartzeko ekintza-plana.

3.– Laguntza-eskaera ingeniari-taldea batek egiten duenean, eskaerarekin batera, dagokion ingeniariaren elkargo profesionalaren ziurtagiria aurkeztu beharko da. Ziurtagiri horrek egiaztatu beharko du gutxienez bi lan egin direla deialdiaren aurreko hiru urteetan, bizitegi-erakuntzaren arloko proiektuei, aholkularitzari edo txostenei lotuta.

4.– Laguntza-eskaera pertsona fisiko zein juridikoen talde batek egin badu, nortasun juridikorik gabeko pribatua edo publikoa izan, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 11.4 artikuluari jarraikiz, aurkeztutako eskaeran adierazi beharko dira taldekide bakoitzak hartu dituen egikaritze-konpromisoak, bai eta bakoitzari dirulaguntzaren zein zati dagokion ere, guztiak hartuko baitira onuraduntzat. Ordezkariek eskabidea sinatu beharko du, eta horren izendapena aurkeztu.

9. artikulua.– Eskabideak zuzentzea.

1.– Laguntza kudeatzen duen organoak eskabidean akats edo hutsegiteren bat dagoela edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumenturen bat falta dela ikusten badu, eskatzaileari jakinaraziko dio, eta 10 eguneko epea emango, akatsa zuzendu edo dokumentua aurkez dezan. Adieraziko zaio, halaber, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela ebazpen bidez. Ebazpen hori Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoaren arabera eman beharko da.

2.– Eskabidea elektronikoki egin behar duenak modu presentzialean aurkezten badu, eskatzaileari eskatuko zaio zuzen dezala, elektronikoki aurkeztuta. Ondorio horietarako, zuzenketa hori egin den eguna joko da eskaeraren aurkezpen-datatzat.

3.– Halaber, eskabidea izapidetzea onartu ondoren, dirulaguntzak kudeatzeko organo arduradunak interesekotzat jotako informazioa eskatu ahalko dio entitate eskatzaileari, aurkeztutako proiektua egokiro baloratzeko, eta horretarako 10 eguneko epea emango dio, informazioa eman ezean proiektua eskatutako informazioa kontuan hartu gabe aztertuko dela jakinarazita.

10. artikulua.– Dirulaguntzak kudeatzen dituen organoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitekturako zuzendariari dagokio deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzen kudeaketa-lanak egitea eta aurkeztutako eskabideak aztertzea eta ebaluatzea.

11. artikulua.– Esleitzeko prozedura.

1.– Aurkeztutako eskabideak, diruz laguntzeko lerro bakoitzean, dagokion prozeduran izapidetuko dira.

2.– I., II. eta V. lerroetako dirulaguntzak lehia-konkurrentziaren bidez esleituko dira, eta lehiaketaren bidez kuantifikatuko dira, puntuazio handienetik txikienera, lerro bakoitzeko aurrekontu-kreditua agortu arte, agindu honetan ezarritako laguntzaren gehieneko zenbatekoa inola ere gainditu gabe.

I., II. eta V. lerroetan diruz lagun daitekeen jarduketatzat hartzeko gutxieneko puntuazioa 50 puntukoa da.

3.– III. lerroari dagozkion dirulaguntzak lehia-konkurrentziaren bidez esleituko dira, kontuan hartuta entitate onuradun batek lerro horretan egindako diruz laguntzeko moduko jarduketen kopurua eta entitate onuradunak ezarritako eta egiaztatutako kudeaketa-sistemen mota, honako irizpide hauen arabera, laguntza-lerro horretara bideratutako aurrekontu-zuzkidurak agortu arte.

Lehenik eta behin, BIM erabiltzen duten eraikuntza-obretako informazioa antolatzeko eta digitalizatzeko sistema ezarri eta ziurtatzeari buruzko jarduketak lagunduko dira diruz, UNE-EN ISO 19650-1:2019 arauan oinarrituta.

Aurreko apartatuan deskribatutako proiektuak diruz lagundu ondoren lerroan oraindik ere aurrekontu-zuzkidura geratzen bada, gainerako jarduketak lagunduko dira diruz, lehentasun-ordena honen arabera:

- 2.1.1.3 puntuko a) apartatuan aurreikusitako sistemaren ziurtapena.
- 2.1.1.3 artikuluko b) eta c) apartatuetako hiru sistemaren ziurtapena.
- 2.1.1.3 artikuluko b) eta c) apartatuetako bi sistemaren ziurtapena.
- 2.1.1.3 artikuluko b) eta c) apartatuetako sistema baten ziurtapena.
- Ziurtagiriak egiaztatzea 2.1.1.3 artikuluko d) apartatuaren arabera.

4.– IV. lerroari dagozkion dirulaguntzak lehiarik gabeko konkurrentziaz esleituko dira, harik eta laguntza-lerro horretara bideratutako aurrekontu-zuzkidurak agortu arte.

12. artikulua.– Balorazio-irizpideak.

I., II. eta V. lerroetako dirulaguntzak jarraian zerrendatutako irizpideen arabera esleituko dira, kasu bakoitzean zehaztutako haztapena kontuan hartuta:

1.– I. lerroa: berrikuntza-proiektuak edo -azterlanak.

1.– Balorazio-irizpidea:	Proposamenaren egokitasuna eta kalitatea.
Gehieneko puntuazioa:	20 puntu
Balorazio-elementuak: Proiektuak baloratzeko, atal hauetako bati buruzkoak izan beharko dute: – Bizitegi-eraikuntzaren kalitatea, funtzionalitateari, arkitekturari eta eraikuntzari dagokienez. – Obra berria: EKT (Eraikuntzaren Kode Teknikoa) aplikatzea, proiektuaren kontrola, obra eta zerbitzuko probak gauzatzea. Eraikinen efizientzia energetikoa. Kostuen kudeaketa eta programazioa. Irigarritasuna eta soluzio domotikoak ezartzea. – Lehendik dauden eraikinak: eraikinen kontserbazio-egoera, Eraikinen Ikuskarpen Teknikoak (EIT), eraikinen patologia, birgaitzea, erabilera eta mantentze-lanak, eta bizitza baliagarria. Eraikinen efizientzia energetikoa. Proiektuaren eta obraren kalitate-kontrola. Kostuen kudeaketa eta programazioa. Irigarritasuna eta soluzio domotikoak ezartzea. Ondarearen kontserbazioari eta babesari buruzko azterlanak, eta birgaitzearekin, efizientzia energetikoarekin eta irigarritasuna hobetzearekin bateragarriak diren aztertzea, araugintzaren aldetik nahiz alderdi operatiboan. – Kudeaketaren kalitatea hobetzeari eta kalitatea ezartzeari buruzko azterlanak. – Bizitegi-erabilera duten eraikinetako obretako laneko segurtasunari eta osasunari buruzko azterlanak. – Bizitegi-erabilera duten eraikinen instalazioei buruzko azterlanak. – Etxebizitza berrien eta lehendik dauden bizigarritasunari buruzko azterlanak. Proiektua Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren jarduketa-ildoetara egokitzeagatik 20 puntu emango dira gehienez. Horretarako, proposatutako jarduketa alderatuko da sailak proposamenean deskribatutako jarduketa-ildo berean egindako azterlan edo analisiekin, edo laguntzen programa honen esparruan aurretik laguntzak jaso dituzten proposamenekin jarraitzen duten proiektuak diren.	
2.– Balorazio-irizpidea:	Sektorean izan dezakeen inpaktua
Gehieneko puntuazioa:	6 puntu
Balorazio-elementuak: Proiektu hau abian jartzeak ekar ditzakeen zientzia- eta teknologia-abantailen onura jaso dezaketen populazio-sektoreak, profesionalak eta enpresak. Gehieneko puntuazioa: 3 puntu. Bat etortzea herrialdeko sektoreek, kluster elkarteek edo enpresa-talde handiek identifikatutako beharrekin eta aukerekin. Gehieneko puntuazioa: 3 puntu.	

3.– Balorazio-irizpidea:	Proiektu edo ikerketa taldearen kalitate teknikoa eta zientifikoa.
Gehieneko puntuazioa:	20 puntu
Balorazio-elementuak: Ikerketa-taldearen dimentsioa, proposatutako lanean taldearen gaitasuna bermatzeko estimatutako masa kritikoari eta kideen dedikazioari dagokienez. Taldean doktoreak, master-tituludunak edota proiektuaren alorrean saritutako teknikariak izatea baloratuko da, baita erreferentziako unibertsitate edo zentro entzutetsuetan esperientzia izatea ere. Halakorik izan ezean, argitaratutako antzeko lanak egin izana baloratuko da, edota laguntzak jaso izana. Gehienez ere 10 puntu. Eskura dituzten ekipamendua eta azpiegiturak baloratuko dira. Gehieneko puntuazioa: 5 puntu. Enpresen elkarteak baloratuko dira. Gehieneko puntuazioa: 5 puntu.	
4.– Balorazio-irizpidea:	Koherentzia eta zorroztasuna lanaren aurkezpenean
Gehieneko puntuazioa:	36 puntu
Balorazio-elementuak: Lanaren helburua azaltzeko memoria. Gehieneko puntuazioa: 18 puntu. Lan-programaren bideragarritasuna. Gehieneko puntuazioa: 18 puntu.	
5.– Balorazio-irizpidea:	Finantzaketaren eskema
Gehieneko puntuazioa:	18 puntu
Balorazio-elementuak: Aurreikusitako aurrekontuaren tamaina: proiektuan aurreikusita dauden helburu eta jarduerekin bat etorri beharko du. Gehieneko puntuazioa: 12 puntu. Babesle pribatuek dirua jartzeko konpromisoa. Gehieneko puntuazioa: 3 puntu. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa eta beste administrazio batzuetako sailek edo enteek aurreikusita daukaten finantzaketa osagarria. Gehieneko puntuazioa: 3 puntu.	
Guztira	100 puntu

2.– II. lerroa: Informatikako tresnak garatzea, eta dibulgazio-kanpainak, jardunaldiak eta prestakuntza-ikastaroak egitea.

1.– Balorazio-irizpidea:	Proposamenaren egokitasuna eta kalitatea.
Gehieneko puntuazioa:	20 puntu
Balorazio-elementuak: Proiektuak baloratzeko, atal hauetako batean inskribatu beharko dira: – Bizitegi-eraikuntzaren kalitatea, funtzionalitateari, arkitekturari eta eraikuntzari dagokienez. – Obra berria: EKT (Eraikuntzaren Kode Teknikoa) aplikatzea, proiektuaren kontrola, obra eta zerbitzuko probak gauzatzea. Eraikinen efizientzia energetikoa. Kostuen kudeaketa eta programazioa. Irigarritasuna eta soluzio domotikoak ezartzea. – Lehendik dauden eraikinak: eraikinen kontserbazio-egoera, Eraikinaren Ikuskapen Teknikoak (EIT), eraikinaren patologia, birgaitzea, erabilera eta mantentze-lanak, eta bizitza baliagarria. Eraikinen efizientzia energetikoa. Proiektuaren eta obraren kalitate-kontrola. Kostuen kudeaketa eta programazioa. Irigarritasuna eta soluzio domotikoak ezartzea. Ondarearen kontserbazioari eta babesari buruzko azterlanak, eta birgaitzearekin, efizientzia energetikoarekin eta irigarritasuna hobetzearekin bateragarriak diren aztertzea, araugintzaren aldetik nahiz alderdi operatiboan. – Industrializazioa. Eraikinen jasagarritasunaren, funtzionaltasunaren, malgutasunaren eta espazioaren arloko prestazioen ebaluazioa. – Kudeaketaren kalitatea hobetzeari eta kalitatea ezartzeari buruzko azterlanak. – Bizitegi-erabilera duten eraikinetako obretako laneko segurtasunari eta osasunari buruzko azterlanak. – Bizitegi-erabilera duten eraikinen instalazioei buruzko azterlanak. – Etxebizitza berrien eta lehendik daudenen bizigarritasunari buruzko azterlanak. Proiektua Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren jarduketa-ildoetara egokitzeagatik 20 puntu emango dira gehienez. Horretarako, proposatutako jarduketa alderatuko da sailak proposamenean deskribatutako jarduketa-ildo berean egindako azterlan edo analisiekin, edo laguntzen programa honen esparruan aurretik laguntzak jaso dituzten proposamenekin jarraitzen duten proiektuak diren.	
2.– Balorazio-irizpidea:	Sektorean izan dezakeen inpaktua
Gehieneko puntuazioa:	15 puntu
Balorazio-elementuak: Proiektu hau abian jartzeak ekar ditzakeen zientzia- eta teknologia-abantailen onura jaso dezaketen populazio-sektoreak, profesionalak eta enpresak. Gehieneko puntuazioa: 8 puntu. Bat etortzea herrialdeko sektoreek, kluster elkarteek edo enpresa-talde handiek identifikatutako beharrekin eta aukerekin. Gehieneko puntuazioa: 7 puntu.	

3.– Balorazio-irizpidea:	Koherentzia eta zorrotasuna lanaren aurkezpenean
Gehieneko puntuazioa:	36 puntu
Balorazio-elementuak: Lanaren helburua azaltzeko memoria. Gehieneko puntuazioa: 18 puntu. Lan-programaren bideragarritasuna. Gehieneko puntuazioa: 18 puntu.	
4.– Balorazio-irizpidea:	Finantzaketaren eskema
Gehieneko puntuazioa:	29 puntu
Balorazio-elementuak: Aurreikusitako aurrekontuaren tamaina: proiektuan aurreikusita dauden helburu eta jarduerekin bat etorri beharko du. Gehieneko puntuazioa: 19 puntu. Babesle pribatuek dirua jartzeko konpromisoa. Gehieneko puntuazioa: 5 puntu. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa eta beste administrazio batzuetako sailek edo enteei aurreikusita daukaten finantzaketa osagarria. Gehieneko puntuazioa: 5 puntu.	
Guztira	100 puntu

3.– V. lerroa: Bizitegi-eraikuntzako eraikuntza-prozesuen industrializazioari buruzko azterlanak, proiektuak eta prototipo espezifikoak.

1.– Balorazio-irizpidea:	Proposamenaren egokitasuna eta kalitatea.
Gehieneko puntuazioa:	20 puntu
Balorazio-elementuak: Proiektuak baloratzeko, 2.1.5 artikulua eta bati buruzkoak izan beharko dute: Proiektua Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren jarduketa-ildoetara egokitzeagatik 20 puntu emango dira gehienez. Horretarako, proposatutako jarduketa alderatuko da sailak proposamenaren deskribatutako jarduketa-ildo berean egindako azterlan edo analisiekin, edo laguntzen programa honen esparruan aurretik laguntzak jaso dituzten proposamenekin jarraitzen duten proiektuak diren.	
2.– Balorazio-irizpidea:	Sektorean izan dezakeen inpaktua
Gehieneko puntuazioa:	6 puntu
Balorazio-elementuak: Proiektu hau abian jartzeak ekar ditzakeen zientzia- eta teknologia-abantailen onura jaso dezaketen populazio-sektoreak, profesionalak eta enpresak. Gehieneko puntuazioa: 3 puntu. Bat etortzea herrialdeko sektoreek, kluster elkarteek edo enpresa-talde handiek identifikatutako beharrek eta aukerekin. Gehieneko puntuazioa: 3 puntu.	

3.– Balorazio-irizpidea:	Proiektu edo ikerketa taldearen kalitate teknikoa eta zientifikoa.
Gehieneko puntuazioa:	20 puntu
Balorazio-elementuak: Ikerketa-taldearen dimentsioa eta garapena, proposatutako lanean taldearen gaitasuna bermatzeko estimatutako masa kritikoari eta kideen dedikazioari dagokienez. Taldean doktoreak, master-tituludunak edota proiektuaren alorrean saritutako teknikariak izatea baloratuko da, baita erreferentziako unibertsitate edo zentro entzutetsuetan esperientzia izatea ere. Halakorik izan ezean, argitaratutako antzeko lanak egin izana baloratuko da, edota laguntzak jaso izana. Gehienez ere 10 puntu. Proiektuak burutzeko enpresek dituzten baliabide teknikoak, materialak eta azpiegiturakoak baloratuko dira. Eskura dituzten ekipamendua eta azpiegiturak baloratuko dira. Gehieneko puntuazioa: 5 puntu. Enpresen elkarteak baloratuko dira. Gehieneko puntuazioa: 5 puntu.	
4.– Balorazio-irizpidea:	Koherentzia eta zorroztasuna lanaren aurkezpenean
Gehieneko puntuazioa:	36 puntu
Balorazio-elementuak: Lanaren helburua azaltzeko memoria. Gehieneko puntuazioa: 18 puntu. Lan-programaren bideragarritasuna. Gehieneko puntuazioa: 18 puntu.	
5.– Balorazio-irizpidea:	Finantzaketaren eskema
Gehieneko puntuazioa:	18 puntu
Balorazio-elementuak: Aurreikusitako aurrekontuaren tamaina: proiektuan aurreikusita dauden helburu eta jarduerekin bat etorri beharko du. Gehieneko puntuazioa: 12 puntu. Babesle pribatuek dirua jartzeko konpromisoa. Gehieneko puntuazioa: 3 puntu. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa eta beste administrazio batzuetako sailek edo enteek aurreikusita daukaten finantzaketa osagarria. Gehieneko puntuazioa: 3 puntu.	
Guztira	100 puntu

13. artikulua.– Aurreikusitako kreditua eta dirulaguntzen zenbatekoa.

1.– Bigarren artikuluan zehaztutako ekintzetarako aurrekontu-zuzkidura osoa milioi bat eta hirurogeita hamar mila (1.070.000,00) eurokoa izango da, honako banakatze honen arabera:

Urtea	Zenbatekoa (eurotan)
2024	74.900,00 €
2025	599.200,00 €
2026	395.900,00 €

Zuzkidura honako aurrekontu-partida honetan dago: 2024 1000821000 1.43122.75101; elementua: PEP 2024/0577.

2.– Esandako zenbatekoa honela banatuko da dirulaguntza-lerro bakoitzerako:

a) I. lerroako «Berrikuntza-proiektuak edo -azterketak»: gehienez ere berrehun eta berrogeita hamar mila (250.000,00) euro bideratuko dira.

b) II. lerroako «Informatikako tresnak garatzea, dibulgazio-kanpainak, prestakuntza-ikastaroak eta jardunaldiak egitea»: gehienez ere ehun eta berrogeita hamar mila (150.000,00) euro bideratuko dira.

c) III. lerroako «Bizitegi-eraikuntzaren sektoreko pertsona fisiko edo juridikoentzako kudeaketa-sistemak ezartzea eta ziurtatzea»: gehienez ere ehun mila euro (100.000,00) bideratuko dira.

d) IV. lerroako «Bizitegi-eraikinetara bideratutako ziurtagiriak ezartzea eta egiaztatzea»: gehienez ere hogeita mila (20.000,00) euro bideratuko dira.

e) V. lerroako «Bizitegi-eraikuntzako eraikuntza-prozesuen industrializazioari buruzko azterlan, proiektu eta prototipo espezifikoak» bostehun eta berrogeita hamar mila euro (550.000,00) bideratuko dira.

3.– Eskabiderik ez dagoelako edo betekizunak betetzen ez direlako aipatutako jardun-lerroetako bati esleitutako diru-zenbatekoa agortzen ez bada, beste jardun-lerro bati esleitutako diru-zenbatekoari gehitu ahalko zaio. Soberakina V. lerroari aplikatuko litzaioke lehendabizi; ondoren, I. lerroari; hirugarrenik, II. lerroari; laugarrenik, IV. lerroari, eta, azkenik, III. lerroari, aginduaren 16. artikuluan aurreikusitako organoak alderdi horretan egindako proposamenarekin bat etorritik. Etxebizitzako sailburuordeak dirulaguntzak emateko eginiko ebazpenean aipatuko da inguruabar hori.

14. artikulua.– Dirulaguntzen zenbatekoa.

1.– I. lerroa: Berrikuntza-proiektuak edo -azterlanak, eta II. lerroa: Informatikako tresnak garatzea, dibulgazio-kanpainak, prestakuntza-ikastaroak eta jardunaldiak egitea.

a) Jarduerak goitik behera ordenatuko dira, eskuratutako puntuen arabera.

b) Ordenatu eta gero, formula hau aplikatu ostean lagunduko dira diruz: eskuratutako puntuazioa/100 eta bi zenbateko hauetako txikienarekin biderkatuta:

1.– Aurkeztutako eta onartutako aurrekontua (zergak kanpo).

2.– Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa, lerro honetako proiektu edo azterlan bakoitzeko.

3.– I. lerroan, 40.000,00 euro izango da proiektu edo azterlan bakoitzeko dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa, eta, II. lerroan, berriz, 30.000,00 euro.

2.– III. lerroa: Bizitegi-eraikuntzaren sektoreko pertsona fisiko edo juridikoentzako kudeaketa-sistemak ezartzea eta ziurtatzea.

a) III. lerroari dagozkion dirulaguntzak lehia-konkurrentziaren bidez esleitu dira, kontuan hartuta entitate onuradun batek lerro horretan egindako diruz laguntzeko moduko jarduketan kopurua eta entitate onuradunak ezarritako eta egiaztatutako kudeaketa-sistemen mota, laguntza-lerro horretara bideratutako aurrekontu-zuzkidurak agortu arte.

b) Kanpoko gastuen % 50 izango da dirulaguntza (zergak kanpo), laneko segurtasun eta osasunari buruzko ISO 45001 arauaren arabera laneko arriskuen prebentzioko ziurtagiriaren kasuan izan ezik; kasu horretan, kanpoko gastuen % 25 izango da, zergak kanpo, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak onartutako proiektuei dagozkiena.

c) Hau izango da laguntzaren gehieneko zenbatekoa ziurtapen bakoitzeko:

1.– UNE-EN ISO 19650 arauak araututako sistema ziurtatzea: 5.000,00 euro.

2.– Sistema bat ziurtatzea: 5.000,00 euro, laneko segurtasun eta osasunari buruzko ISO 45001 arauaren ziurtagirietarako izan ezik, 2.500,00 eurokoa izango baita kasu horretan.

3.– Bi sistema ziurtatzea: 8.000,00 euro, ziurtagirietako bat laneko segurtasun eta osasunari buruzko ISO 45001 arauarena denean izan ezik, 5.500,00 eurokoa izango baita kasu horretan.

4.– Hiru sistema ziurtatzea: 11.000,00 euro, ziurtagirietako bat laneko segurtasun eta osasunari buruzko ISO 45001 arauarena denean izan ezik, 8.500,00 eurokoa izango baita kasu horretan.

5.– Eraikuntzaren sektoreko profesionalentzat dauden efizientzia energetikoari eta jasagarritasunari lotutako ziurtagiriak egiaztatzea: 2.000,00 euro.

d) Dirulaguntza-lerro honi dagozkion dirulaguntzen esleipenean zenbatekoa zehazteko, eskabideetan agindu honetan eskatutako baldintza subjektibo eta objektiboak betetzen direla egiaztatu ondoren, honako prozesu honi jarraituko zaio:

1.– Atal honetan ezarritako jarduketaren lehentasun-ordenako lehen tartean dauden eskaerei dagokien dirulaguntza-zenbatekoaren hasierako kalkulua egingo da, atal honetan lehen adierazitako ehuneko- eta kopuru-parametroak errespetatuz eta eskatutako zenbatekoa gainditu gabe.

2.– Lerroaren zuzkidura ekonomikoak hasieran kalkulaturako zenbateko guztiak estaltzen baditu, emaitzazko zenbatekoen dirulaguntzak esleitu dira. Bestela, kalkulaturako kopuruei dagokien murrizketa lineala aplikatuko zaie, zuzkidura hori kopuru guztiak estaltzeko nahikoa izan arte.

3.– Jarduketaren lehentasun-ordenako lehen tarteari dagokionez egindako dirulaguntza-esleipenaren ostean, banatzeko zuzkidura ekonomikoa geratzen bada, dirulaguntzak esleitzeko prozesuari jarraituko zaio baldintza berberetan, tartean lehentasun-ordenaren beheranzko ordenari jarraikiz, dirulaguntza-lerroko zuzkidura ekonomikoa agortu arte, hala badagokio.

3.– IV. lerroa: Bizitegi-eraikinetara bideratutako ziurtagiriak ezartzea eta egiaztatzea.

a) Kanpoko gastuen % 50 izango da dirulaguntza (zergak kanpo). Eraikin bakoitzeko dirulaguntza 6.000,00 eurokoa izango da, gehienez ere.

b) Dirulaguntza-lerro horri dagozkion dirulaguntzak esleitzeko zenbatekoa zehazteko, prozesu honi jarraituko zaio:

1.– Agindu honetan eskatutako baldintza subjektibo eta objektibo guztiak betetzen direla egiaztatu eta gero, dirulaguntzaren zenbatekoaren hasierako kalkulua egingo da, eta aurreko paragrafoetan adierazitako ehuneko parametroak eta parametro kuantitatiboak errespetatuko dira, eskatutako zenbatekoa gainditu gabe.

2.– Lerroaren zuzkidura ekonomikoak hasieran kalkulaturako zenbateko guztiak estaltzen baditu, emaitzazko zenbatekoen dirulaguntzak esleituko dira. Bestela, kalkulaturako kopuruei dagokien murrizketa lineala aplikatuko zaie, zuzkidura hori kopuru guztiak estaltzeko nahikoa izan arte.

4.– V. lerroa: Bizitegi-eraikuntzako eraikuntza-prozesuen industrializazioari buruzko azterlanak, proiektuak eta prototipo espezifikoak.

a) Jarduerak goitik behera ordenatuko dira, eskuratutako puntuen arabera.

b) Ordenatu eta gero, formula hau aplikatu ostean lagunduko dira diruz: eskuratutako puntuazioa/100 eta bi zenbateko hauetako txikienarekin biderkatuta:

1.– Aurkeztutako eta onartutako aurrekontua (zergak kanpo).

2.– Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa, lerro honetako proiektu edo azterlan bakoitzeko.

c) V. lerroko proiektu edo azterlan bakoitzeko dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 150.000,00 euro izango da.

15. artikulua.– Balorazio-epaimahaia.

1.– Eskabideak baloratzeko, balorazio-epaimahai bat eratuko da, honako hauek osatua: Eraikuntzaren Arkitektura, Araudi eta Kalitate Kontroleko Zerbitzuko buruak eta Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitekturako zuzendariak izendatutako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko bi teknikaririk.

2.– Balorazio-epaimahaiaren osaera laguntzak eskatzen dituztenei jakinaraziko zaie, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan arautzen den errekusazio-araubidearen ondorioetarako.

3.– Epaimahai horrek, 12. artikuluan ezarritako irizpideak aplikatuta, dirulaguntza-lerro bakoitzean aurkeztutako eskabideak baloratuko ditu, eta, 11. artikuluan horietako bakoitzerako aurreikusitakoaren arabera, ebaluazioaren emaitza jasoko duen txosten bat egingo du, eta laguntzak kudeatzeko organoari bidaliko dio.

4.– Bere eginkizunak betetzearren eta beharrezko irizten dien gaiei dagokienez, balorazio-epaimahaiak adituak deitu ditzake hala bileretan parte hartzera nola aholku ematera.

16. artikulua.– Kudeaketa, ebazpena, errekursoak, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko modua eta publikotasun-prozedura.

1.– Aurkeztutako eskabideak, diruz laguntzeko lerro bakoitzean, dagokion prozeduran izapidetuko dira.

2.– Dirulaguntza-lerroetako bakoitza ebaztea, pertsona interesdunek planteatutako gai guztiak erabakita, Etxebizitzako sailburuordeari dagokio, Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitekturako zuzendariak proposatu ostean.

Ebazpen-proposamenean, eman nahi diren dirulaguntzen zerrenda jasoko da (pertsona onuraduna, diruz lagundutako jarduketa, hala badagokio, lortutako puntuazioa eta zenbatekoa adierazita), bai eta ukatu nahi diren dirulaguntzena ere (eskatzailea eta ukatzeko arrazoia adierazita).

3.– Halaber, prozedura bakoitzean emandako ebazpenak zehaztuko du eskatutako dirulaguntzak emango diren edo ukatu egingo diren; lehenengo egoeran, entitate edo pertsona onuradunen izena edo izen soziala, finantzatutako jarduera, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta, hala badagokio, dirulaguntza horren urtekako banaketa adierazi beharko dira. Horrez gain, nortasun juridikorik gabeko elkarteak badira, idatziz adieraziko dira elkarteko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko zenbatekoa.

Ukatu direnen kasuan, eskatzaileen izena edo izen soziala eta ukoa arrazoitzen duten zergatiak azalduko dira; horrez gain, lehia-konkurrentziaren bidez proposatutako proiektuen puntuazioa ere adieraziko da.

4.– Aurreko apartatuan aipatutako ebazpenak ez du administrazio-bidea agortzen, eta horren aurka interesdunek gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango diote Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuari, hilabeteko epean jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluei jarraituz.

5.– Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei, dagokion prozeduraren bidez, eta, horrez gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, denek horren berri izan dezaten.

6.– Ebazteko eta ebatzitakoa pertsona interesdunei jakinarazteko gehieneko epea lau hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko azken egunetik aurrera. Epe hori igaro eta ebazpenik jakinarazi ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertu beharko dute interesdunek, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeako abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.5 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

17. artikulua.– Dirulaguntza justifikatzea.

1.– Entitate onuradunek 2026ko ekainaren 30a baino lehen justifikatu beharko dute diruz lagundutako ekintza, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeako abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 32. artikuluaekin bat etorritik.

2.– Horretarako, eta betiere, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, dirulaguntza eskatzeko erabili zituzten bitarteko berberak erabiliz:

a) Dirulaguntza jasotzeko den jardun-lerroari dagozkion ekintzak egin direla azaltzeko memoria –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan dago eskuragarri–, haien ezaugarri nagusiak eta helburuen betetze-maila azalduta.

b) III. eta IV. lerroetako jarduerak egiaztatzeko, entitate ziurtatzaileak edo markak egiaztatutako organismoek egindako ziurtagiria aurkeztu beharko da.

c) Diruz lagundutako gastua benetan egin dela egiaztatzen duten fakturak edo ordainagiriak.

d) Sarreraren eta gastuen zerrenda; hala badagokio, helburu berbererako beste dirulaguntza, laguntza edo sarrera batzuk jaso diren zehaztuko da.

e) Diruz lagundutako ekimenaren berri emateko egindako komunikazio- eta publizitate-ekintzei buruzko memoria deskribatzailea.

f) Proiektuan sortutako materialen kopia.

g) IV. lerroa justifikatzeko, dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsitako obra-amaierako ziurtagiria aurkeztuko da.

18. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea.

Agindu honen babesean emango diren dirulaguntzak honela ordainduko dira:

1.– Aginduaren 19. artikulua 1. paragrafoaren a) apartatuan ezarritako epea igaro ondoren, espresuki uko egin ez bazaio, ordaintzeko agindua emango da, ordainketa aurreratu gisa, emandako dirulaguntzaren ehuneko zazpiti (% 7) dagokion zenbatekoa, hain zuzen. Hasieran ordaindutako ehuneko horri dagokion jarduketaren justifikazioa aurkeztu den lehen txostenarekin batera eman beharko da, laguntzaren gainerako ordainketak egin ahal izateko.

2.– Emandako diru-kopuruaren zati bat, ehuneko hamar (% 10) hain zuzen, gorde egingo da eta entitate onuradunak laguntzaren xede den jarduera benetan gauzatu dela ziurtatzen duenean ordainduko zaio.

3.– Gainerakoa, proposatutako lan-planetan aurkeztutako mugarren arabera txostenak aurkeztu ondoren ordainduko da. Hala, txosten horietan justifikatutako gastuaren zenbatekoaren ehunekoa (dirulaguntza osoaren gainekoa), aurretik ordainduta dagoena kenduta, kalkulatu da ordaintzeko aginduak emateko garaian, betiere diruz lagundutako jarduketarako onartutako aurrekontuaren gainean (hura baliatu baitzen laguntzaren kalkulua egiteko), bai eta benetako kostua ere, ekitaldi bakoitzeko urteko kopurua gainditu gabe.

4.– Ez da inolako ordainketarik egingo onuradunak egunean ez baditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak edo itzulketa-ebazpen batek adierazita zordun bada.

5.– Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, entitate onuraduna Eusko Jaurlaritzaren dagokion datu-basean agertu beharko da. Alta egiteko edo hirugarren interesdun gisa dagozkion datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak eskainitako hirugarrenen erregistro elektronikora jo beharko du interesdunak, honako helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

19. artikulua.– Entitate onuradunaren betebeharrak.

1.– Aginduan araututako dirulaguntzak jasotzen dituzten entitate onuradunek betebeharrak hauek bete beharko dituzte beti, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzearen 21eko 20/2023 Legearen 14. eta 42. artikuluetan ezarritakoez gain:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Dirulaguntza eman zaiela jakinarazten dien idazkia jaso eta hamabost eguneko epean entitate onuradunek ukoa idatziz eta espresuki adierazten ez badute, dirulaguntza onartu egiten dutela ulertuko da.

b) Dirulaguntza eman den xede horretarako erabiltzea.

c) Diruz lagundutako ekintza gauzatzea eta justifikatzea, aginduaren 5. eta 17. artikuluetan ezarritako epeetan.

d) Hala dagokionean, proiektuak gauzatzea egoki diren lizentziak, baimenak eta gainerako sektore-betekizunak betez.

e) Dirulaguntza eman duen organoak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egingo dituen egiaztapen-ekintzak onartzea, baita Espainiako zein Europar Batasuneko kontrol-organo eskudunek finantza-arloa egiaztatze eta kontrolatzeko egin dezaketen jarduketa oro ere. Horretarako, jarduketa horiek gauzatzean eskatzen zaien informazio guztia eman behar dute onuradunek.

f) Organo emaileari jakinaraztea diruz lagundutako jarduera finantzatzeko bestelako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskuratu izana. Jakin bezain laster jakinarazi behar zaio, eta betiere jasotako funtsen erabilera justifikatu baino lehen.

g) Onuradunek publikotasuna eman beharko diete dirulaguntzei, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 27. artikulua arabera. Publikotasuna, gutxienez ere, esleitutako dirulaguntzaren berri entitate onuradunaren webgunean ematea izango da, eta bestelako publikotasunik ere zehaztu ahal izango da jarduketaren izaeraren eta ezaugarrien arabera.

h) Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari doan eta era ez-esklusiboan lagatzea dirulaguntzaren esparruan egiten den informazio teknikoa eta grafikoa erabiltzeko eskubidea, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren informazio-sistemetan erabili eta txerta ditzan, eta haren zabalkundea edo argitalpena egin dezan edozein baliabide edo formatu bibliografikotan, ikus-entzunezkotan, informatikotan edota teknikaren erabilerak ahalbidetzen duenetan. Edonola ere, jabetza intelektualaren eskubideak errespetatuko dira.

2.– Onuradunak diruz lagundu daitekeen jarduera egiteko egin behar dituen gastu diruz lagungarriek Sektore Publikoko Kontratuen Legean kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen badituzte, onuradunak, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, hornitzaile desberdinen gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko ditu, obrarako konpromisoa, zerbitzuaren prestazioa edo ondasunaren entrega egin aurretik.

Betekizun hori proiektuak idazteko eta obrak zuzentzeko kontratuari (zerbitzu-kontratuari) zein obra-kontratuari aplikatuko zaie. Aurkeztutako eskaintzen artetik aukeraketa egiteko (dirulaguntzaren justifikazioarekin edo, hala badagokio, eskabidearekin batera aurkeztuko dira eskaintzak), efizientzia eta ekonomia irizpideak erabiliko dira, eta txosten baten bidez espresuki justifikatu beharko da proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean.

3.– Entitate onuradunek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak antolatutako sentsibilizazio- eta trebakuntza-jardueretan parte hartu ahal izango dute, baita esperientziak trukatzekoetan ere, betiere Eraikal ekimenean bildutako jardueren barruan.

20. artikulua.– Emandako laguntzaren zenbatekoa aldatzea.

Jarduketaren behin betiko benetako kostua dirulaguntza emateko oinarritzat hartutako aurrekontua baino txikiagoa bada, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa dagokion proportzioan murriztuko da. Onartutako aurrekontuaren gaineko ehuneko baten arabera zehazten diren laguntzen kasuan, esandako ehunekoa aplikatuko da oinarri berriaren gainean.

Halaber, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.4 k) artikulua arabera, aldi berean beste edozein administratibotatik edo ente publiko edo pribatutatik laguntza edo dirulaguntza gehiago lortzen bada, eta bestelako diru-sarrerak badaude helburu bera lortzeko, emandako dirulaguntzak aldatu egingo dira.

21. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

1.– Dirulaguntza esleitzeko kontuan hartutako baldintzetan aldakuntzaren bat eginez gero, baldin eta deialdiaren xedea betetzat jotzen bada eta, hala dagokionean, deialdi honetan esleitutako dirulaguntzez gain beste entitate publiko zein pribatu baten dirulaguntzak edo laguntzak jaso badira, horren berri aurretiaz eman beharko dute, Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzak espresuki onar ditzan. Aipatutako aldaketek dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekarri ahal izango dute, betiere agindu honetan dirulaguntzen onuradun izateko ezarritako gutxieneko betekizunak betetzen badira. Horretarako, dagokion kitapen-ebazpena emango da, esleitutako dirulaguntzaren zenbatekoa doitzeko, edo, hala badagokio, behar den zenbatekoaz gaindi jasotakoa itzultzea eskatzeko.

2.– Ezingo da inola ere aldatu jardueraren izaera, eta, aldaketa onartuko bada, entitate onuradunak txosten bidez justifikatu beharko du aldatutako proiektuaren eragina parekoa edo handiagoa dela hasieran diruz lagundutako proiektuarena baino.

3.– Dirulaguntzaren onuradunak justifikazioan adierazten badu dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak aldatu egin direla eta litekeena dela aldaketa horrek ebazpena bera ere aldaraztea, eta aldaketok onartzeko aurrez behar den administrazio-baimenaren izapidea ez bada egin, dirulaguntza eman duen organoaren aukeran geratuko da aurkeztutako justifikazioa ontzat ematea, betiere hori eginda beste inoren eskubideak kaltetzen ez badira.

4.– Dirulaguntza eman duen organoak egiaztapen-egintzan aldaketak onartzeak ez dakar berekin onuraduna dagozkion zehapenetatik salbuetsita geratzea.

5.– Dirulaguntza jaso duen jarduera egiteko eta amaitzeko epeari dagokionez, entitate onuradunaren borondatez kanpoko arrazoiak ageri direnean eta behar bezala justifikatuta dagoenean, entitate horrek, jarduera amaitzeko epea baino gutxienez hilabete lehenago, dirulaguntza jaso duen jarduera amaitzeko aldeztutako aurretik zehaztutako epeak luzatzeko eskatu ahal izango du. Epea ez da luzatuko onuradunak justifikatutako atzerapen-denbora baino gehiago, ez eta 2026ko abenduaren 30a baino gehiago ere.

Epea luzatzeko eskaera hori Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitekturako zuzendariak onartu beharko du, ebazpen bidez. Ebazpen horretan, era berean, azken likidazioa egiteko eskatutako dokumentu guztiak aurkezteko azken epe berria finkatuko da.

22. oinarria.– Atzera egitea eta uko egitea.

1.– Laguntza-eskatzailerek atzera egin ahalko dute, betiere eskatutako laguntzak emateko prozeduraren ebazpena jakinarazi aurretik. Horretarako, agindu honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko organoari eskaera helarazi beharko dio, eta hark, ebazpen baten bidez, bete-betean onartu eskaera eta amaitutzat emango du haiei dagokien prozedura.

2.– Onuradunak, gainera, uko egin ahal izango dio onartutako laguntzari, eta hala egin ahal izango du laguntza onartu ondoren. Horretarako, emandako laguntzei uko egiteko eskaera helarazi beharko diote laguntzak kudeatzeko organoari, eta hark, ebazpen baten bidez, bete-betean onartu eskaera eta amaitutzat emango du haiei dagokien prozedura.

3.– Ukoa onartu ondoren, onuradunak automatikoki galduko du ebazpen bidez onartutako eskubidea, baita emandako laguntza kobratzeko eskubidea ere, eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu.

4.– Ez da onartuko aurkeztutako ukoa, baldin eta entitate interesdunari jakinarazi bazaio ez-betetzea deklaratzeko edo zehatzeko prozedura hasi dela deialdiaren esparruan, eta prozedura horrek aurrera jarraituko du ebatzi arte.

23. artikulua.– Ez-betetzearen ondorioak.

1.– Entitate onuradunak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren dirulaguntza ez badu erabiltzen eskatu eta eman zen berariazko xederako, dirulaguntzaren oinarria den jarduera egiten ez badu, justifikatzen ez badu edo justifikazioa nahikoa ez bada, edo, oro har, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzearen 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan jasotako itzulketa-kausaren bat gertatzen bada.

2.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 19. artikulua 3. apartatuan jasotako kasuan, halaber, diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainean izandako soberakina itzuli beharko da, eta dirulaguntzei aplikagarri zaien berandutze-interesa ere eskatuko da.

24. artikulua.– Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Laguntza hauek bateragarriak izango dira helburu berbera duten funts publikoen edo pribatuen kargura jaso daitekeen beste edozein laguntzarekin. Hala ere, helburu berbererako jasotako laguntzen zenbateko osoa eta deialdi honetan emandako dirulaguntzaren kopurua batuz lortzen den emaitza handiagoa bada amaierako kostu osoa baino, deialdi honen bidez emandako laguntzaren zenbatekoari gehiegizko kopuru hori kenduko zaio.

II. ERANSKINA

Eredua, dirulaguntza modu presentzialean eskatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-erakuntzaren sektorean kudeaketa-sistemak ezartzea sustatzeko, eraikuntza- eta arkitektura-kalitatea eta jasangarritasuna sustatzeko eta berrikuntzari laguntzeko (Eraikal 2024 programa).

Dirulaguntzaren eskabidea aurkezteko organoa:

– Eusko Jaurlaritza

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren erregistro orokorra. Donostia kalea, 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

– Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Arabako Lurralde Ordezkaritza.

Samaniego kalea 2, 1. solairua. 01008 Vitoria-Gasteiz.

– Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.

Andia kalea 13.

20004 Donostia.

– Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza.

Kale Nagusia 85. 48011 Bilbao.

Datuak babesteari buruzko informazioa:

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua betez, jakinarazten da zure datu pertsonalak tratatu eta tratamendu-jarduera honetan sartuko direla: Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritzaren laguntzak eta dirulaguntzak.

Tratamenduaren arduraduna:

– Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritza.

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba. Telefonoa: 945 01 80 00

Web-orria: <http://euskadi.eus>

Datuak babesteko ordezkaria:

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba. Telefonoa: 945 01 86 80

Web-orria: www.euskadi.eus/datu-babesa

Xedea:

Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzaren laguntzak eta dirulaguntzak kudeatzea, Renove programa, etxebizitzaren eta eraikinen birgaitze efizientea, udalentsako, toki-erakunde txikientzako eta xede soziala duten onura publikoko entitate pribatuentzako irisgarritasunaren arloko laguntzak, Eraikal programa, zuzeneko dirulaguntzak.

Legitimazioa:

- Tratamendua beharrezkoa da aplikatu beharreko lege-betebeharrak betetzeko.
- Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzean egin behar den eginkizun bat betetzeko.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.
- Datuak gordeta edukitzeko epea.
- Datu-bilketaren xedea betetzeko eta balizko erantzukizunak zehazteko behar den denbora. Artxiboko eta dokumentazioko araudian indarrean dagoena beteko da.

Hartzaileak:

- Europar Batasuneko organoak.

Datuen babesaren arloko eskubideak:

1.– Irispidea izatea:

Tratamenduaren arduradunak interesdunari dagozkion datu pertsonalak tratatzen ari diren ala ez berresteko eskubidea da, eta, tratatzen ari badira, datu horiek eskuratzeko eskubidea.

2.– Zuzentzea:

Bere datu pertsonal akastunak zuzentzeko eskubidea dauka interesdunak, eta osatu gabe dauden datu pertsonalak osatzekoa, behar izanez gero adierazpen gehigarri baten bidez.

3.– Ezabatzea.

Ahaztua izateko eskubidea: Interesdunak duen eskubidea, berari dagozkion datu pertsonalak ezabatzea lortzeko, honako inguruabar hauetako bat gertatzen denean:

- a) Datu pertsonalak jadanik ez badira beharrezkoak, bildu zirenean edo beste modu batez tratatu zirenean zeuden helburuei dagokienez.
- b) Interesdunak tratamendua egiteko baimena kentzen duenean, eta tratamenduak ez badu beste oinarri juridikorik.
- c) Interesdunak tratamenduari aurka egiten dionean, eta ez denean bestelako arrazoi juridikorik gailentzen tratamendurako.
- d) Datu pertsonalak legez kontra tratatu badira.

e) Datu pertsonalak ezabatu behar badira, tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidean ezarritako lege-betebehar baten indarrez.

f) Tratamendua legez kontrakoa denean eta interesdunak datu pertsonalak ezabatzearen aurka egiten duenean eta, horren ordez, haien erabilera mugatzeko eskatzen duenean.

g) Arduradunak jadanik behar ez baditu datu pertsonalak tratamenduaren helburuei begira, baina interesdunak bai, erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko.

h) Interesdunak tratamenduaren aurka egin badu, eta tratamenduaren arduradunaren arrazoi legitimoak interesdunaren arrazoiaren gainetik dauden ala ez egiaztatzen den bitartean.

4.– Aurka egitea:

1.– Interesdunak eskubidea izango du, bere egoera partikularra dela-eta, edozein unetan, tratamenduaren arduradunari galarazteko berari buruzko datu pertsonalen tratamendua egitea, tratamendua beharrezkoa bada ere interes publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko edo ahal publikoak erabili edo hirugarrenen interes legitimoa babesteko, baita profilak egiteko ere.

2.– Tratamenduaren arduradunak datuak tratatzeari utziko dio, noiz eta ez duen egiaztatzen interesdunaren interes, eskubide eta askatasunen gainetik arrazoi larriak daudela edo datuok beharrezkoak direla erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko.

3.– Datuen tratamenduaren helburua bada ikerketa zientifikoa, historikoa edo estatistikoa, interesdunak eskubidea izango du, bere egoera partikularra dela-eta, edozein unetan, berari buruzko datu pertsonalen tratamenduaren aurka egiteko, salbu eta tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

4.– Tratamendu automatizatuak: Eskubide honen bidez bermatu nahi da interesduna ez izatea tratamendu automatizatu batean soilik oinarrituta dagoen eta harengan ondorio juridikoak edo antzeko ondorio esanguratsuak dituen erabaki baten jomuga, profilak egitea barnean dela.

Eskubideak baliatzea:

– Eskubide horiek tratamenduaren arduradunaren aurrean baliatzeko eskubidea daukazu, datuen babesaren arloko eskubideak baliatzeko prozeduraren bidez:

www.euskadi.eus/zerbitzuak/10842/

– Halaber, eskubidea duzu erreklamazioak Datuak Babesteko Euskal Bulegoan aurkezteko, eta aukera duzu, baita ere, aurretik erreklamazioa jartzeko datuak babesteko ordezkariari:

www.euskadi.eus/zerbitzuak/10843/

Datu pertsonalen babesari buruzko informazio xehatua:

– EAEko datuak babesteko ordezkariaren webgunea: (www.euskadi.eus/datu-babesa).

– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra: (eur-lex.europa.eu/legalcontent/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES).

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

(www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673)

LAGUNTZA ESKATZEKO EREDUA

Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitekturako zuzendariari:

....., 2024koaren(a).

.....(izen-abizenak) jaunak/andreak ,
.....(kargua) den aldetik,
.....(entitate eskatzailea) ordezkatzuz , zeinak
.....(entitate eskatzailearen helbidea) helbidea baitu –harremanetarako
telefonoa:–, honen bidez, honetarako laguntza eskatzen du: Euskal Autonomia Erkidegoko
bizitegi-eraikuntzaren eta hiri-habitataren sektoreko enpresetan kudeaketa-sistemak ezartzea eta hobetzea
sustatzea, jasangarritasuna sustatzea eta berrikuntzari laguntzea (Eraikal 2024 programa).

Eraikal 2024 programa horri dagokion deialdia Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren
2024ko ekainaren 11ko Aginduak arautzen du.

Eskaera hau laguntza-lerro honi dagokio:

- ☐ I. lerroa: Honako alderdi hauei dagozkien berrikuntza arloko proiektu edo azterlanak:
 - a) Bizitegi-eraikuntzaren kalitatea, funtzionalitateari, arkitekturari eta eraikuntzari dagokienez.
 - b) Kudeaketaren kalitatea hobetzeari eta kalitatea ezartzeari buruzko azterlanak eta Eraikuntzaren Informazioa Modelatzea.
 - c) Bizitegi-erabilera duten eraikinetako obretako laneko segurtasunari eta osasunari buruzko azterlanak.
 - d) Bizitegi-erabilera duten eraikinen instalazioei buruzko azterlanak.
 - e) Etxebizitza berrien eta lehendik dauden bizigarritasunari buruzko azterlanak.
- ☐ II. lerroa: Informatikako tresnak garatzea, eta dibulgazio-kanpainak, jardunaldiak eta prestakuntza-ikastaroak egitea, aurreko atalean aurreikusitako gaiekin lotuta.
- ☐ III. lerroa: Bizitegi-eraikuntzaren sektoreko pertsona fisiko edo juridikoentzako kudeaketa-sistemak ezartzea eta ziurtatzea.
- ☐ IV. lerroa: Bizitegi-eraikinetara bideratutako ziurtagiriak ezartzea eta egiaztatzea.
- ☐ V. lerroa: Bizitegi-eraikuntzako eraikuntza-prozesuen industrializazioari buruzko azterlanak, proiektuak eta prototipo espezifikoak.

Erreferentziako deialdian parte hartzeko, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2024ko ekainaren 11ko Aginduaren 8. artikuluan adierazitako dokumentazioa erantsi zaio laguntza-eskabide honi:

- a) Erantzukizunpeko adierazpena.
- b) Proiektuaren memoria.
- c) Urteka banakatutako aurrekontua 2025. urtera arte, bai eta lanketa edo jardueren arabera ere, lanketa bakoitzaren barne-gastuak (proiektua zuzentzen duen eragilearen beraren gastuak) eta kanpoko edo azpikontrataturako eragileen gastuak (kanpo entitateak azpikontratatzeko gastuak) bereizita.

d) Diruz lagundutako jardueraren eredugarritasuna hedatzeko, jakinarazteko eta indartzeko ekintza-plana.

Eskatzaileak baimena ematen/ukutzen du automatikoki egiazta dadin egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Eskatzaileak baimen hori ukatzen badu, ziurtagiria erantsi beharko dio laguntza-eskabideari, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 6.3 artikuluan jasotakoaren arabera –Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da agindu hori–.

Zure erantzunaren zain, jaso ezazu agur bero bat, (Izena eta sinadura).

1.– Deialdi honetarako eskabidea pertsona fisiko zein juridikoen talde batek egin badu, nortasun juridikorik gabeko pribatua edo publikoa izan, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 11.4 artikuluari jarraikiz, aurkeztutako eskaeran adierazi beharko dira taldekide bakoitzak hartu dituen egikaritze-konpromisoak, bai eta bakoitzari dirulaguntzaren zein zati dagokion ere, guztiak hartuko baitira onuraduntzat.

Haiek guztiek sinatu beharko dute eskabidea, non eta ez duten ordezkaria izendatzen; hala izanez gero, ordezkariak behar beste ahal izan beharko ditu, taldeari (onuradun gisa) dagozkion obligazioak bere gain hartu ahal izateko. Ordezkariak eskabidea sinatu beharko du, eta horren izendapena aurkeztu.

Elkartea ezingo da desegin harik eta preskripzio-epea igaro arte, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 39. artikuluan eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 44. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

....., 2024koaren(a).

.....(izen-abizenak)

jaunak/andreak,

.....(kargua) den
aldetik,(entitate eskatzailea) ordezkatzuz –
helbidea:(entitate eskatzailearen helbidea)–, zeinak
laguntza-eskabidea egin baitu Eraikal 2024 programako laguntzen deialdirako, agiri honen bidez hau
adierazten du:

a) Pertsona edo entitate eskatzaileak honako hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzen ditu
Eraikal 2024 programako laguntzen onuradun izateko: agindu honetan, Dirulaguntzen Araubidea
Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko
38/2003 Lege Orokorrean eta azken horren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko
887/2006 Errege Dekretuan. Horrez gain, hala ziurtatzen duen dokumentazioa dauka, eta hura
eskaten zaionean Administrazioaren eskura jarriko du.

b) (Aukeratu bat datorrena):

- ☐ Pertsona edo entitate eskatzaileak ez du eskatu, ezta lortu ere, helburu bererako
dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabiderik beste administrazio edo
ente publiko edo pribaturen batetik.
- ☐ Pertsona edo entitate eskatzaileak bai eskatu edo lortu du helburu bererako dirulaguntza,
laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabiderik beste administrazio edo ente publiko edo
pribaturen batetik.

Zehazki,(r)en (laguntza eskatu zaion organismoaren
izena) laguntza eskatu/lortu du, proiektua honako honek araututako baldintzen arabera
garatzeko: (laguntza osagarriaren eskaeraren deialdia
arautzen duen araudiaren erreferentzia). Proiektuaren barruan, baldintza hauen arabera
egin da eskaera/eman da laguntza:

- Dirulaguntzak estaltzen dituen kontzeptuak:
- Eskatutako zenbatekoa:
- Emandako zenbatekoa:
- BEZaren zenbatekoa bai da/ez da diruz laguntzekoa.

Dokumentu honen datan, dirulaguntza hori oraindik ez da ebatzi, edo baldintza hauetan
ebatzi da: ebazpenean ezarri dira (laguntzak ebazten dituen dokumentuaren
erreferentzia).

c) Pertsona edo entitate eskatzaileak ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko
aukera galdu epai irmo bidez, eta ez dute kondenatu delitu hauetakoren bat egiteagatik:
prebikarioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe eralgitzea, influentzia-
trafikoa, iruzur eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

- d) Pertsona edo entitate eskatzaileak ez du borondatezko konkurtsoaren deklarazioa eskatu, ez da prozeduraren batean kaudimengabetzat deklaratu izan edo konkurtsoan deklaratu izan –salbu eta bertan hitzarmen bat eraginkor bihurtu bada–, eta ez dago inongo esku-hartze judizialen pean edota desgaituta Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, artean konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaituntza-aldia amaitu gabe izanik.
- e) Pertsona edo entitate eskatzaileak ez du bide eman administrazioarekin egindako kontraturen bat irmoki suntsiaraz dadin, kausaren batean errudun deklaratu egotearen.
- f) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez daudela honako lege hauek jasotako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea. Edo ez direla Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguak, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.
- g) Pertsona edo entitate eskatzaileak egunean ditu indarreko xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, erregelamenduz zehazten den moduan.
- h) Pertsona edo entitate eskatzaileak ez dauka egoitza fiskala erregelamenduz zerga-paradisu gisa sailkatutako lurralde edo herrialderen batean.
- i) Pertsona edo entitate eskatzaileak egunean ditu dirulaguntzak itzultzeko ordainketa-betebeharrak, erregelamenduz zehazten denarekin bat etorritik.
- j) Pertsona edo entitate eskatzaileak ez du jaso, ebazpen irmo bidez, dirulaguntzak lortzeko aukera galtzea dakarren zehapenik, lege honetan edo besteren batean oinarrituta.
- k) Pertsona edo entitate eskatzaileak ez du jaso zehapenik, ez administratiboki ez penalki, sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik, kasuan kasuko zehapenean ezarritako aldia.
- l) Entitate eskatzaileak Estatuko araudiaren arabeko berdintasun-plan bat dauka indarrean, eta, 50 langile baino gehiago baditu, egiaztatu du neurriak ezarri dituela sexu-jazarpena edo sexuagatik jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko Estatuko legeriak ezarritakoaren arabera.
- m) Pertsona edo entitate eskatzaileak ez du zehapenik jaso Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik, administrazio-bideko ebazpen irmoaren bidez, salbu eta neurri zuzentzaile egokiak gauzatu baditu eta zehapena ordaindu badu.
- n) Pertsona edo entitate eskatzaileak bete du desgaitasuna duten pertsonentzat legez gorde behar den kuota, edo egiaztatu du hori bete dadin neurri alternatiboak abian jarri izana.
- o) Pertsona edo entitate eskatzaileak ez du onuradun izateko debekurik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2. eta 13.3. artikuluetan ezarritakoaren arabera.
- p) Pertsona edo entitate eskatzaileak ez du lortu Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduari –Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa– lotutako laguntzarik aurreko hiru urteetan.

Laguntzarik jaso badu, laguntza horien zenbatekoa eurokoa da.

- q) Hala badagokio, laguntza eskatzen duen pertsona edo entitatea Eraikal 2024 programako laguntzen IV. lerrorako aurkeztu den eraikin bat egitea sustatzen duena da.
- r) Entitate eskatzaileak enpresa ez deslokalizatzeko konpromisoa adierazten du, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- s) Aldi berean dirulaguntza bat baino gehiago jasoz gero, gainfinantzaketarik ez eragiteko konpromisoa hartzen du entitate eskatzaileak.

Jasota geratzen da erantzukizunpeko adierazpeneko funtsezko zehaztasunik ezak, faltsukeriak edo omisioak erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak izan ditzakeela; eta Administrazioak egiaztatze, kontrolatzeko eta ikuskatzeko ahalmena duela.

Eta horrela jasota gera dadin, eta deialdiaren oinarrietan aurreikusitako ondorioak izan ditzan, aipatutako dirulaguntzak emateko prozedurarako deialdia egiten duen administrazio-organoaren aurrean, erantzukizunpeko adierazpen hau egiten dut,(e)n, 2024koaren(e)(a)n.

(Izena, sinadura eta, hala badagokio, entitatearen zigilua)